

bai aldizkaria

Bai Euskarari Elkartaren aldizkaria | 41 zk | 2025eko abendua



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

Ziklo berri baten atarian

**Lan munduan euskararen
erabilera sustatzea helburu**





Maddi Iregi
[Bai Euskarari Elkarteko aholkularia]

HARROTASUNEZ, 25 URTE!

BAI, Bai Euskarari Ziurtagiriak 2025ean 25 urte bete ditu, eta mende laurdeneko ibilbide honek harrotasunez atzera begiratzeko eta indarrez aurrera egiteko aukera paregabea eskaintzen digu. Bai, *harrotasuna*. Batzuetan hitza handiegia iruditzen zaigu, baina... zergatik ez? Gure txikitasunetik harro sentitzen gara 25 urte hauetan lortu dugun guztiagatik eta, batez ere, sortu dugun komunitate zabal eta konprometitu horregatik.

Komunitatea da gure funtsa eta muina. Guk, euskara, lana eta pertsonak erdigunean jarri nahi izan ditugu, bai lantokian eta baita kalean ere. Bide horretan gurekin batera ibili den komunitate indartsuak eman digu benetako indarra, eta hori ospatzekoa da.

Urte hauetan zehar, Bai Euskarari Elkartek hainbat proiektu sortu eta kudeatu ditu: **Bai Euskarari Ziurtagiria, Enpresarean, Lansarean, Elkarrengandik Ikasiz, Euskaragileak, Arabako Enpresen Foroa** eta beste hainbat. Proiektu hauekin euskararen presentzia eta erabilera sustatu dugu, lankidetzak sareak eraiki ditugu erakunde eta entitateen arteko aliantzak sendotzeko, eta komunitateari ahotsa ematen dieten espazioak sortu ditugu. Hauek guztiek gure jardunaren bihotza osatu dute.

Eguneroko lanetan murgilduta, ez da erraza hausnarketarako tartea hartzea, baina egiten dugun lanari begirada orokorra ematea beharrezkoa da, horri esker jabetzen gara zenbateko sarea eraiki dugun eta gure balioa zein den. Batzuetan beharrezkoa izaten da geratu eta errepaso bat egitea, gure sorrera, ibilbidea eta etorkizuneko erronka eta aukeren inguruan hausnartzeko. 25. urteurrenak aukera paregabea eskaini digu horretarako eta dokumental labur bat egiteko baliatu dugu, egindako guztia batzeko eta etorkizunera begira jartzeko.

Dokumentala ez da gure historiaren bilduma hutsa, urte hauetako lan guztien errepasoa baizik, baina era berean, herri honen narratiba sendotzen laguntzen duen haria da. Gure ziurtagiriak, proiektuek, komunitateak eta ibilbideak osatzen duten paisaia irudikatu nahi izan dugu ahots desberdinen bidez kontatua. Euskararen **herri honetan, gure hizkuntza berpizteko kontakizuna josten laguntzen diguten hari ikusezin horietako bat ere izan da dokumentala.**

Elkartetik **gure aletxoak jarri dugu**, egindako lana ospatzeaz gain, herri honen narratiba komuna sendotzen laguntzen duen ikuspegia eskaintzen. Komunitatearekin eraikita eta komunitatearentzat sortua, dokumentalak ziurtagiriaren 25 urteko bidea kontatzen du, baita biharko erronkei begiratzeko modua ere.

Eta horregatik guztiagatik, argi daukagu: **harrotasunez hemen jarraituko dugula komunitatearekin, lan munduan euskara sustatuz.**

2026-2028 Plan Estrategikoa 3

Elkarriketa

Idurre Eskisabel Larrañaga 4

Euskaragileen topaketa 6

Arabako Enpresen Foroa 8

Enpresarean Foroa 10

Lazarraga Sariak Eredu 12

Komunitatearen txokoa 14

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkartea
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140
Andoain

t. +34 943592148

38 Cordeliers karrika - 64100, Baiona

t. +33 603494365

Rogelia de Alvaro Elkarleen Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Bai Euskarari Elkartea eta Arteman
Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak: Bai Euskarari Elkartea,
Arteman Komunikazioa eta Euskalgintza-
ren Kontseilua.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak

Banaketa: Bai Euskarari Elkartea

Lege gordailua: SS-497-2010



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus

f x @ in

Bai Euskarari Elkartea
Plan estrategikoa
2026-2028

Bai Euskarari Elkartea etorkizunera begira: 2026-2028 Plan Estrategikoa lantzen ari gara

Sorreratik, Bai Euskarari Elkartea lan munduan euskararen erabilera sustatzeko lanean aritu da, beti ere komunitatearen beharrak eta erronkak erdigunean jarritz. Orain, ziklo berri baten atarian, 2026-2028 eperako Plan Estrategikoa diseinatzeko prozesuan murgilduta gaude.

Hausnarketa eta berrikuntza unea iritsi da. Jakitun gara euskalgintzak bizi duen egoera ez dela erraza: erronka berriek, hizkuntza-ohituren aldaketek eta lan munduko dinamika azkarrek gure jarduna berriz pentsatzera bultzatzen gaituzte. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da norabide argi eta ausart bat zehaztea, elkar-tearen indarra berri- eta komunitatea sendotzeko.

Bost ardatz etorkizunerako

Lantaldea, Zuzendaritza eta komunitateko eragileekin batera egindako lansaioetan, etorkizuneko bide-orria marraztuko duten bost ardatz nagusiak identifikatu ditugu jada:

- 1. Ikuspegi eta norabide berria:** Elkar-tearen misioa eguneratu eta etorkizuneko bidea argi definitzea.
- 2. Lidergo eredu berria:** Zuzendaritza taldearen lidergoa eta rola zehaztea garai berrietarako.
- 3. Antolakuntza eredu eta kudeaketa sistema:** Barne funtzionamendua egokitu eta baliabideen kudeaketa indartzea, eraginkorrak izateko.
- 4. Komunitate ereduaren garapena:** Elkar-tearen inguruan sare sendo, parte-hartzaile eta aktibo bat eraikitzea.

- 5. Lan munduan posizionamendua indartzea:** Euskararen erabilera eta balioa enpresetan zein lan-esparruetan sustatzea, erreferentzialtasuna irabaziz.

Urtarriletik aurrera, lanketa sakona

Nahiz eta ildo nagusiak zehaztuta dauden, Plan Estrategikoaren garapen osoa urtarriletik aurrera egingo da. Hurrengo hilabeteetan lanketa sakona burutuko dugu zehaztutako ardatz horiek ekintza zehatz bilakatzeko.

Bitartean, eta trantsizioa ordenatua izan dadin, aurreko urteetako plan estrategikoari eutsiko diogu, elkar-tearen jardunaren jarraikortasuna eta egonkortasuna uneoro bermatuz.

Plan berri hau ez da soilik dokumentu bat izango, etorkizunerako konpromiso bat baizik. Bai Euskarari Elkar-tearen ibilbideari jarraipena emango dio, baina aldi berean, ezinbestekoak diren berrikuntza eta eraldaketa bultzatuko ditu, euskarak lan munduan eta gizartean behar duen lekua izan dezan.

Eskerrik asko prozesu honetan bidelagun izaten ari zareten guztioi. Elkarrekin, euskaraz lan eta bizi egiteko nahi dugun etorkizuna eraikitzen ari gara.

EUSKALGINTZAREN KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA

“Larrialdi linguistikoan gaudela adieraztea ez da etsipenerako deia, Pizkunde berri baterako lehen urratsa baizik”

Euskararen egoera bidegurutze zailean dagoela ohartarazi du Idurre Eskisabel Larrañagak, Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusiak; "larrialdi linguistikoaz" mintzo da argi eta garbi. Hala ere, diagnostiko gordina ez du etsi-sentsazioa zabaltzeko egiten, erreakzio sozial eta politikoa eragiteko baizik. Testuinguru honetan, abenduaren 27an Bilboko Miribillan egingo den ekitaldi masiboaz, Batuz Aldatu dinamikaz eta euskaltzaletasuna berriz ere agenda politikoaren erdigunera ekartzearen garrantziaz aritu gara.

Euskararen etorkizuna jokoan dago. Zein dira hori esateko adierazle nagusiak?

Hainbat dira zerrenda genitzakeen datu eta joera soziolinguistikoak, baina alarma piztekoak dira eremu euskaldunenetan atzera egiten ari dela euskararen erabilera, eta Euskal Herri osoko joera dela euskaraz erdaretan baino errazago moldatzen diren hiztunak gero eta gutxiago izatea. Zifretara etorrita, hiztunen % 17,5 baino ez dira egunerokoan euskara erdarak adina edo gehiago erabiltzen dutenak. Halaber, UEMak eta Siadecok egindako ikerketaren arabera, ezer egin ezean 11 urte barru euskara arnagunerik gabe gelditu daiteke.

Nafarroan, adibidez, hamar ikasletik seik ez du inolako harremanik euskararekin bere ikasketa prozesu guztian,



eta eremu euskaldunenetan ere erabilera soziala ahultzen ari da. Ipar Euskal Herrian, euskal hiztun kopurua mantendu bada ere, proportzioan beherantz egiten segitzen du. 2021ean biztanleriaren % 21,1 bakarrik zen euskalduna, eta Euskararen Erakunde Publikoak egindako prospekzioen arabera tasa hori % 16koa litzateke 2050ean. Soziolinguistikan adituek diote lurralde bateko biztanleriaren % 30ek behar duela hizkuntza baten eza-gutza haren etorkizuna ziurtatzeko.

Aldi berean, azken urteetako oldarraldi judizial, politiko eta mediatiko etengabeak zalantzan jartzen ari dira euskararen koofizialtasuna Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lurraldeetan, eta minorizazio egoera gainditzeko beharrezkoak diren hizkuntza-politikako neurriak desegiten ari dira. Desofizializazio prozesu baten aurrean gaude.

Asko dira euskararen eta euskal hiztun komunitatearen larrialdi egoera baieztatzen duten adierazleak. Nolanahi ere, larrialdi linguistikoan gaudela adieraztea ez da etsipenerako deia, baizik eta euskararen normalizazio eta biziberritzea onbideratzeko lehen urratsa emateko modua. Eta badakigu egoera itzulikatzeko lehen eginkizuna zein den: auzi hau agenda politiko eta sozialaren ardatzean jartzea.

Euskaltzaletasunaren giharra indartzeko, zertan eragin dezakegu norbanakook, Bai Euskarari komunitatea osatzen duten entitateek, administrazioak?

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, adierazi genuen

“UEMAk eta Siadecok egindako ikerketaren arabera, ezer egin ezean 11 urte barru euskara arnagunerik gabe gelditu daiteke.”

kinka larri honetan ezinbestekoa dela berriro ere euskara lehen lerrora ekartzea, euskaltzaletasuna indartzea. Gizarte eragileak horretan ari gara. Milaka herritar sumatzen ditugu horretarako prest.

Bai Euskarari komunitatea osatzen duten entitateei esango nieke orain arteko bidean sakontzeko. Komunitate honen parte izatea euskaltzaletasunarekiko konpromiso eta erabaki kontziente horren emaitza da. Eta beharrezkoa da euskaltzaletasun hori, entitateko kide eta langile guztiengana iristeaz gain, ingurunera ere hedatzea: inguruko enpresetara, bezeroengana, kale eta plazetara...

Administrazioari dagokionez, indar politikoek eta, bereziki, instituzioek beren erantzukizun eta eragin gaitasunetik euskara lehen lerrora ekartzea eta euskaltzaletasunera lerratzea ezinbestekoa da. Euskara larrialdian dago eta hizkuntza-politiketan jauzi bat egitea ezinbestekoa da etorkizuna bermatzeko, luzamendurik gabe. Horretarako badugu proposamena, irailean Batuz Aldatu adostasun sozialaren Talde Eragileak aurkeztu zuen *Itun Soziopolitiko berrirako eskaintza* dokumentua, dagoeneko Euskal Herri osoko 140 eragile sozial garrantzitsuren babesa jaso duena. Bertan, etorkizuneko hizkuntza-politikaren helburuak, norabidea eta neurriak jaso genituen.

Abenduaren 27ko ekitaldia. Zer izango da?

Abenduaren 27koa Bilbako Arena euskaltzaletaz bete nahi duen ekitaldia izango da, euskaldunontzako arnasa

"Abenduaren 27a une sinboliko bezain garrantzitsua izango da, euskarak behar duen Pizkunde berri baten lehen txinparta."



kolektibo bat. Larrialdia indarraldia bihurtzeko bide-orria proposatuko dugu, eta kulturgileen ekarpena izango da hori josteko modua. Eta, bide batez, euskarak ezinbesteko duen ekosistema, euskarazko kultura, erdigunean jarriko dugu, kulturgileen ekarpenen bidez josiko ditugunak, euskaraz sortzen duten kulturgileek eskaintzen diguten unibertsoa erdigunean jartzeko.

Besteak beste, hamarkadatan euskararen taupadaren parte izan diren kantuak ekarriko ditugu Euskal Herri osoko eta beladunaldi ezberdinetako bederatzi musikaririk, 'Euskararen soinu-banda' eratuz: Amets Aranguren, Anari, Benizze, Gontzal Mendibil, Gorka Urbizu, Joseba Tapia, Flako Fonki, Maia Iribarne, eta Miren Narbaiza. Gainera, azken urteetan euskarazko zineman nabarmendu diren hainbat aktorek ere parte hartuko dute, besteak beste, Edurne Azkarate, Itziar Ituño, Miren Gaztañaga, Olaia Aguayo eta Ramon Agirre aktoreek. Era berean, oholtzara igoko dira Ane Labaka eta Sustrai Colina bertsolariak, baita kulturgile gehiago ere. Ekitaldiaren gidaritza artistikoa Oier Gillan antzerkigilearen esku izan da.

Ekitaldirako sarrerak 10 euroko ekarpen ekonomikoaren truke esku-

ratu daitezke www.pizkundera.eus webgunean. Jasotako dirua osotasunean artisten lana ordaintzera eta ekitaldiaren gastuen zati bat estaltzera bideratuko da.

Zergatik joan behar dugu Bilbora?

Hiru arrazoi nagusi eman ditugu Bilbora joateko. Lehenengoa, euskaltzaletan indar eta batasunaren erakustaldi bat egiteko. Euskaraz bizi nahi dugula adierazi, elkarrekin arnasa hartu, eta euskarari etorkizuna emateko prest gaudela erakusteko.

Bigarrena, euskal jendarte osoari mezu argi bat helarazteko. Izan ere, egiturazko minorizazioan dagoen euskararen normalizazioa eta biziberritzea guztion ardura da, gizarte berdintasunarekin, justiziarekin eta askatasunarekin lotutako beste auzi asko bezala.

Hirugarren eta azkenik, lehen aipatu dugun bezala, hizkuntza-politiketan –eta, jakina, kultur politikan– ezinbestekoa eta premiazkoa den jauzi sendo hori bultzatzeko. Eragile instituzional, politiko, ekonomiko, kultural eta sozial guztiei euskararen ezagutzaren unibertsalizazioaren eta erabilera normalerako baldintzen alde egin dezatela eskatzeko.



Euskara, lehiakortasunaren eta kohesioaren giltza: Euskaragileak Topaketaren oihartzunak

Joan den urriaren 10ean, Berriatuako Cikautxo kooperatibak enpresen arteko sinergiak eta hizkuntza-kudeaketako eredu arrakastatsuak erdigunean jarri zituen hitzordua hartu zuen.

Lan mundua euskalduntzea ez da erronka isolatu bat, talde-lana baizik. Premisa horrekin bildu ziren dozenaka enpresatako ordezkariak Berriatuan, Bai Euskarari Elkartek eta Euskaragileak batzordeak antolatutako topaketan. Helburua argia bezain beharrezkoa zen: erakundeen arteko harreman sareak sendotzea eta euskara sustatzeko eredu erreala, praktikoak eta, batez ere, eraginkorrak partekatzea.

Esperientzia praktikoen laborategia

Jardunaldiaren muina aniztasunean oinarritu zen. Sektore eta tamaina oso desberdinetako sei enpresek beren “sukaldeko ateak” ireki zituzten, hizkuntza kudeaketan izandako esperientziak bertaratutakoei azaltzeko.

Ez zen teoria hutsa izan; **Bruss, Lantegi Batuak, Traola Produkzioak, Tazebaez, Eika** eta,

nola ez, etxekoak diren **Cikautxo**-ko ordezkariak beren praktika onak jarri zituzten mahai gainean. Enpresa bakoitzak bere errealitatetik abiatuta erakutsi zituen arrakastaren gakoak, parte-hartzaileei ideia freskoak eta estrategia moldagarriak eskainiz. Saio hauek agerian utzi zuten euskararen txertaketa balioko erantsi bat dela, enpresaren izaerara egokitu daitekeena.

Teoriatik praktikara: Cikautxo barrutik

Topaketaren unerik bisualena Cikautxoko instalazioetara egin-dako bisita gidatua izan zen. Bertaratutakoek aukera paregabea izan zuten entzundakoa begiez ikusteko. Ibilbidean zehar, kooperatibako arduradunek *in situ* erakutsi zuten nola kudeatzen den euskara eguneroko zurrunbiloan; ekoizpen-lerroetako makinaren burrunbatik hasi eta bulegoetako ku-deaketa lasaiagoraino.

Motxila ideiaz beteta

Euskaragileak Topaketak berretsi zuen lankidetzaren lan mundua euskalduntzeko motorrik indartsuena. Berriatuako hitzordutik ateratako ondorio nagusia baikortasuna izan zen: parte-hartzaileak motxila ideiaz eta inspirazioz beteta itzuli ziren beren lantokietara, bakoitzak bere eremuan euskararen aldeko urrats berri eta sendoak emateko prest.

Topaketako argazki
gehiago eta bideoa:



#BaiPraktikaEgokia

**Euskaraz lan egiteko
20 jarraibide**



baieuskarari.eus

Hizkuntza-irizpideak, Arabako enpresen kudeaketaren erdigunean

Arabako Enpresen Foroaren XIII. edizioak agerian utzi du hizkuntza-kudeaketa eraginkorra funtsezkoa dela lan-giroa hobetzeko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.



Enpresa baten arrakasta ez da soilik emaitza ekonomikoetan neurtzen, baita bere barneko prozesuetan ere, eta horien artean, hizkuntza-ren erabilera pisu handia du. Ideia hori izan zen irailaren 23an Gasteizko Europa Biltzar Jauregian egindako Arabako Enpresen Foroaren ardatza. Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak antolatuta —eta Bai Euskarari Elkartearen laguntza teknikoarekin—, XIII. edizio honek Arabako ehun sozioekonomikoa bildu zuen gogoeta bateratu baterako.

Lanabes, estrategia partekatua

Joseba Koldo Perez de Heredia Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko zuzendariak eman zien ongietorria bertaratutakoei, eta Txus Arrietak, zerbitzu bereko buruak, testuinguruan jarri zuen topaketa. Ekitaldia Lanabes egitasmoaren barruan kokatzen da, 2020tik Araban euskara lan-munduan sustatzeko martxan dagoen ekimen estrategikoa, hain zuzen. Helburua ez da euskara gehigarri bat izatea, enpresen egunerokoan integratutako tresna bat baizik.

Dinamika praktikoak eta eredu errealak

Jardunaldia ez zen hitzaldi hutsetara mugatu; talde-lana izan zen protagonista. Parte-hartzaileek enpresetan sor daitezkeen hizkuntza-egoera errealak aztertu zituzten, kasuan kasuko erantzun egokiak eta neurriak diseinatzuz. Ariketa horren helburua argia zen: enpresa bakoitzari bere hizkuntza-irizpideak zehazteko tresnak ematea.





Teoriatik praktikara salto egiteko, EBA SL enpresako Nerea Caballerok bere esperientzia azaldu zuen. Bere enpresan irizpide horiek zehazteko prozesua nolakoa izan den eta lortutako arrakastak partekatu zituen, gainerakoentzat eredu inspiratzailea bihurtuz.

2026ra begira

Saioa etorkizunari begira amaitu zen. Enpresek euskararen normalizazioan eman beharreko hurrengo pausoak identifikatu eta 2026rako lehentasunak zehaztu zituzten kolektiboki. Horrez gain, *Make It Visual*-ek jardunaldiaren laburpen grafikoa egin zuen, ideiak modu bisualean jasoz.

Bestalde, otsaileko fororako etxeko lanak ere jarri ziren:

praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzen duten enpresen mapa osatzen jarraitzea, lanbide heziketako eta unibertsitateko ikasleek beren ibilbide profesionala euskaraz hasi ahal izan dezaten.

Foroak ondorio garbia utzi zuen: Arabako enpresen artean gero eta interes handiagoa dago euskara kudeaketa-planetan txertatzeko, lan-giro euskaldunagoa, hurbilagoa eta eraginkorragoa lortzeko bidean.

Jardunaldian erabilitako
aurkezpena, argazkiak eta bideoa:



**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

Mugak zubi bihurtuz: Ipar eta Hego lotzen dituen enpresa-sarea

Azaroaren 20an egindako Enpresarean Foroak agerian utzi zuen administrazioaren hormak gainditzeko gakoak borondatea, irudimena eta, batez ere, herri-ikuspegia direla.

“Muga: aukera edo oztopo?”. Galdera zuzen horrekin abiatu zuen Bai Euskarari Elkartek urteko azken Enpresarean Foroa. Eran-tzuna, ordea, ez da bakarra. Mapetan marraztutako lerroek eta estatuen burokraziek hormak altxatzen dituzten bitartean, euskal enpresa eta eragile askok egunero frogatzen dute arrakalak aurki daitezkeela horma horietan, lankidetzaz eta herri-ikuspegia erabiliz.

Nagore Arin *Berria*-ko kazetariak gidatutako saioan, teoria eta praktika eskutik joan ziren, eta ondorio nagusi bat gailendu zen: bidea ez da erraza, baina egin daiteke.

Euskara, “goxotasuna” ematen duen lotura

Jardunaldiaren testuingurua Joan Blancok marraztu zuen, Bihartean proiektuko koordinatzaileak. Nafarroa, Baiona eta Gipuzkoako merkataritza ganberak batzen dituen erakundetik, Blancok argi utzi zuen mugaz gaindiko lankidetzaz negozio-aukeratik harago doala: harremanetarako espazio bat da.

Euroboost proiektua bezalako baliabide teknikoak aipatu zituen arren, Blancok azpimarratu zuen elementurik bereizgarriena



ukiezina dela: hizkuntza. “Euskarak ekartzen du goxotasun bat beste hizkuntzek ez dutena”, adierazi zuen. Haren hitzetan, itzulpenak beharrezkoak diren arren, euskarak egiten du lurraldeen arteko zubi-lan natural eta benetakoena.

Lau esperientzia, norabide bera

Foroaren muina lau proiektu errealek testigantzek osatu zuten. Sektore oso desberdinetakoak izan arren —enplegua, kultura, te-

lekomunikazioak eta finantzak—, guztiek partekatzen dute “mugarik gabeko Euskal Herria” buruan izatea:

Lansarean: Bai Euskarari Elkar-teko Amaia Atxukarrok azaldu zenez, lan-atari honek Euskal Herri osoa hartzen du aintzat. Helburua argia da: talentuak eta enpresek ez dezatela muga administratiborik izan elkar aurkitzeko.

Elkar: Kulturaren industriaren erreferentea. Julen Agirrezabala-gak gogorarazi zuen Elkarrek



1972tik (Ipar Euskal Herrian sortu zenetik) eta 1976tik (Hego Euskal Herrira jauzi egin zuenetik) "ikuspegi nazionalarekin" lan egi-ten duela. Bi egitura juridiko izan arren, edizio plan bakarra dute, euskal komunitateari kalitaterik onena eskaintzeko helburuarekin.

Izarkom: Telekomunikazioak eskubide gisa ulertuz, Iker Garaialdek azaldu zuen kooperatiba europarra sortzeko bidean dau- dela. Dagoeneko telefono finkoa eskaintzen dute Iparraldean eta bulegoak dituzte Irunen, Bilbon eta Iruñean.

Euskal Moneta: Nikolas Blainek Euskoaren arrakasta (6 milioi eu- roko trukeak urtean) jarri zuen

mahai gainean. Orain, erronketako bat Hego Euskal Herrira zabaltzea da: Baztanen eta Oarsoaldean es- perientzia pilotuak abiatzen ari dira, bideragarritasun juridikoa az- tertzen duten bitartean.

Oztopoen gainetik, bideak eraikitzen

Hizlari guztiek onartu zuten bi estatuen legedi ezberdinen eta burokraziaren menpe egoteak zailtasun handiak sortzen ditue- la (banku-sistemak, fakturazioa, araudiak...). Hala ere, amaierako mezua baikorra eta indartsua izan zen. Mugaz gainti lan egin nahi duenari aholku bat eskatu zitzaio- nean, erantzuna bateratsua izan



zen: "Asmatu behar dira bideak, aukerak badaude".

Jardunaldia kafearen bueltan amaitu zen, bertaratutakoek, hiz- larien hitzak barneratuta, beren arteko sinergiak eta "bide berriak" bilatzeko asmoz.

Jardunaldiko hitzaldiak eta solasaldia ikus-entzun ditzakezu hemen:

Joan Blanco, Bihartean



Amaia Atxukarro, Lansarean



Elkar, Izarkom eta Euskal Moneta solasaldia





Eredugarritasunaren “sukaldean” bisitan: Lazarraga Sariak Eredu topaketa

Azaroaren 28an Laudion egindako jardunaldian, iaz Lazarraga Sariak jaso zituzten entitateek ateak zabaldu zituzten, euskara beren egunerokoan nola txertatzen duten erakusteko.

Saria jasotzea gauza bat da, eta saria merezi izateko egindako lana erakustea, beste bat. Filosofia horrekin bildu zen Arabako enpresa-sarea joan den ostegunean, azaroak 28, Laudion. Bai Euskarari Elkartek, Arabako Foru Aldun-

diaren babesarekin, ‘Lazarraga Sariak Eredu’ jardunaldia antolatu zuen, helburu garbi batekin: 2024ko edizioan saritutakoen “sukaldeak” ezagutzea.

Ez zen kortesiazko bisita hutsa izan. Topaketa honek aukera

eman zuen azalekoa urratu eta enpresa horien erraietan murgiltzeko, bertatik bertara ikusteko nola kudeatzen den hizkuntza ekoizpean, bezeroekiko harremanetan eta barne-funtzionamenduan.

lansarean



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

**EUSKARAZKO
LAN-ATARIA**
LAN BILA ZABILTZA?
LANA ESKAINTZEN DUZU?

lansarean.eus

f x in



Ibilbide ibiltaria Laudion barrena

Jardunaldia Grafik Sarea enpresaren egoitzan hasi zen; beraiek izan ziren lehen anfitrioiak, beren instalazioak eta lan-giroa erakutsiz. Baina topaketa ez zen leku bakarrera mugatu. Bisita ibiltari baten formatuan, parte-hartzai-

leek Laudioko enpresen gunea zeharkatu zuten beste bi entitate erreferente bisitatzeko: Sartu Álava eta Hyundai Eska.

Hiru erakundeek gardentasun osoz zabaldu zituzten ateak. Ez zituzten soilik instalazioak erakutsi; euskara beren balio-katean nola integratzen duten azaldu zuten, prozesu teknikoetatik hasi eta arreta zerbitzuraino.

Azken geltokia: erronkak partekatzen

Goizeko ibilbidea Aiaraldea Ekintzen Faktorian amaitu zen, hausnarketarako gune bihurtuta. Bertan, Jimmy Jazz aretoko ordezkaria batu zitzaion taldeari, bere esperientzia gainerakoekin partekatzeko.

Lau erakundeetako ordezkariak mahai gainean jarri zuten urte hauetan egindako bidea. Jardu-

naldiaren balio nagusia zintzotasuna izan zen: ez ziren lorpenetan bakarrik zentratu; bidean topatutako harriak, zailtasunak eta erronkak ere azaldu zituzten. Eta garrantzitsuenak: oztopo horiei aurre egiteko garatu dituzten “erre-zeta” edo praktika onak partekatu zituzten, entzuleek beren enpresetara eraman zituzten.

Topaketa Aiaraldea Ekintzen Faktorian bertan prestatutako jaki goxoz amaitu zen.

Argazkiak eta bideo laburpena:



Tokiko erakundeen babesa

Bai Euskarari Elkarteak urteak daramatza lan munduan euskararen erabilera sustatzen, horretarako ezinbestekoa da udalerriekin elkarlanean aritzea. Hauekin sinatutako lankidetzek sustapen hori errotu eta babestea dute helburu. Akordio horien bidez, udalek eta tokiko erakundeek elkarlanean dihardute euskararen kudeaketa hobetzeko eta herritarren eguneroko bizitzan hizkuntzaren presentzia sendotzeko.

Lankidetzak hauek aukera ematen diete herriko enpresei, saltokiei eta entitateei "Bai Euskarari" ziurtagiria eskuratzeko. Bai Euskarari elkartearen helburua da arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzen ari diren entitateen ahalegina aitortzea, hizkuntza planifikaziorako neurriak abiatzeko aholkularitza eskaintzea, eta haiekin batera elkarlanean aritzea, erreferente berriak sortuz, eta sare-lana bultzatuz. Horrela, udalerriek euskararen aldeko dinamika partekatu eta eraginkorra garatzen dute, komunitate osoarentzat onuragarria den hizkuntza-ingurune bizia sortuz.

Indarrean dauden lankidetzak

Gaur egun hainbat dira elkartearekin lankidetzak duten udalerriak. Araban; Gasteiz, Laudio eta Amurrio. Bizkaian Lekeitio eta Gernika. Gipuzkoan; Lezo, Azpeitia eta Zarautz. Nafarroan: Barañain eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatea.

Aurtengo hitzarmen berriak

Bai Euskarari Elkarteak eta Urruñako Herriko Etxeak lankidetzak hitzarmen bat sinatu dute aurten bertako entitateei euskara egunerokoan txertatzen laguntzeko, kontsumitzaileei euskaraz aritzeko aukerak errazteko eta, oro har, euskarari ikusgarritasun handiagoa emateko.

Elkarrekin Urruñako Euskararen Mapa osatu da, 39 entitate topatzen dira bertan. Komunikazio kanpaina baten bidez Ziurtagiridun berriak



ezagutzera eman dira, diploma banaketa egin da Herriko Etxearekin lankidetzan eta biztanleei zuzendutako eskuko 'Urruñako Euskararen Mapa' sortu da kontsumo ohituretan eragiteko asmoz.

Lekeitioko Udalak eta Bai Euskarari Elkartek hitzarmena sinatu zuten iaz herrian euskararen erabilera indartzeko eta hizkuntza-paisaia hobetzeko. Bi erakundeek elkarlanean dihardute ostalaritza eta merkataritza sektoreetan euskararen presentzia areagotzeko, herriko identitatea indartuz eta turismoarekin bateragarri eginez. 75 saltokirekin harremanetan jarri eta aurrez aurreko bisitak egin dira. Horietatik 62k erabaki dute ziurtagiria lortzeko pausoa ematea, hasierako helburua 30koa bazen ere.



Entitate berriak

2025eko azken hilabeteotan honako hauek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria.

Agirre Hartz Klinika	Gipuzkoa	Lezo	Euskararen bidean
Alkora - Donostia	Gipuzkoa	Donostia	Zerbitzua euskaraz
Autoescuela San Prudencio Autoeskola	Araba	Gasteiz	Euskararen bidean
Busto Hartz Klinika	Gipuzkoa	Lezo	Euskararen bidean
Ediren	Araba	Gasteiz	Euskararen bidean
ENHERKOM Hernaniko energia berriztagarrien komunitatea S.KOOP	Gipuzkoa	Hernani	Zerbitzua euskaraz
Enpresabidea	Gipuzkoa	Donostia	Zerbitzua euskaraz
érase1vez - jostailu denda	Araba	Gasteiz	Euskararen bidean
Gorobel Kirol Gunea - Amurrio	Araba	Amurrio	Euskararen bidean
Kubike Aisialdi Taldea	Bizkaia	Aulestia	Zerbitzua eta lana euskaraz
Miltrasteros	Araba	Gasteiz	Euskararen bidean
Nagore Vázquez guneko psikologikoa	Gipuzkoa	Lezo	Euskararen bidean
San Telmo Museoa	Gipuzkoa	Donostia	Zerbitzua euskaraz
Tarteka Media kooperatiba elkarte txikia	Araba	Agurain	Zerbitzua euskaraz
Urdaibai Ardandegia	Bizkaia	Gernika-Lumo	Euskararen bidean

URTE BERRI ON 2026!

**PIZTU
EUSKARAREN
GARRA!**



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus

f X @ in y